

# 2026-2027 IKASTURTERAKO BEKAK, LAGUNTZAK ETA SOROSPENAK

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IKASTETXE BAIMENDUETAN IKASKETAK EGITEN ARI DIREN UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASLEEI ZUZENDUA.

**2026-2027KO DEIALDIA:** Hezkuntza sailburuaren Agindua.

**Eskatzeko epea:** 2026ko uztailaren 27tik irailaren 30era.

**Eskabidea on-line helbide elektroniko honetan:** [euskadi.eus/unibertsitateaz-kanpoko-bekak](http://euskadi.eus/unibertsitateaz-kanpoko-bekak)

## BEKA ETA DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOAK ETA MOTAK

### I. KAPITULUA

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Musika eta Dantzako oinarritzko ikasketak egiten dituzten ikasleentzat.

**Ikasmaterialetarako:** diru-laguntza hau liburuak erostera zuzenduta dago.

|                                                                                     |       |
|-------------------------------------------------------------------------------------|-------|
| Haur Hezkuntza (2. zikloa) .....                                                    | 78 €  |
| Ikastetxe Publikoetako Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren maila .....             | 38 €  |
| Ikastetxe Publikoetako Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. Maila .....              | 50 €  |
| Lehen Hezkuntza .....                                                               | 117 € |
| Ikastetxe Publikoetako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza .....                       | 60 €  |
| Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Musika eta Dantzako oinarritzko ikasketa ..... | 159 € |

**Bazkariak ordaintzeko:** etxetik kanpo bazkaldu behar duten ikasleentzat, (Haur Hezkuntzako 1. zikloko bi urteko gela, Haur Hezkuntzako 2. zikloa, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoentzat). Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa .....

818,80 €

**Kuota:** Haur Hezkuntzako 1. zikloko eskola-kuota ordaintzen laguntzeko.

- 0 eta 1 urteko ikasleak: laguntzaren gehieneko zenbatekoa: **90 € hilean**.
- 2 urteko gelako ikasleak (Ez da bidezkoa izango ikastetxe publikoetan, itunpeko ikastetxeetan eta kuotarik ordaintzen ez denean): .....

200 €

## BEKA ETA DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOAK ETA MOTAK

### II. KAPITULUA

Batxilergoa, Oinarritzko Lanbide Heziketa, Erdi-mailakoa edota Goi-Mailakoa, Musikako eta Dantzako Ikasketa Profesionalak, Arte Plastikoak eta Diseinuko Heziketa Zikloak, Kirol-Irakaskuntzak, eta Hizkuntzako ikasketak egiten dituzten ikasleentzako osagaiak:

**Oinarritzko bekaren osagaia:** .....

300 €

Oinarritzko Mailako Heziketa Zikloak egiten dituzten bekadunen kasuan, zenbateko hori **350 eurokoa** izango da. Osagai hau bateraezina da ikaslearen familia-errentari lotutako osagaiarekin.

**Zenbateko osagarria osagaia:** .....

60 €

Batxilergoa, Lanbide Heziketa Erdi-Mailakoa edota Goi-Mailakoa, Musikako eta Dantzako Ikasketa Profesionalak, Arte Plastikoak eta Diseinuko Heziketa Zikloak, Kirol-Irakaskuntzak Ikasketak egiten dituzten ikasleentzako osagaiak:

**Ikaslearen familia-errentari lotutako osagaia:** .....

1.700 €

**Ikasturtean zehar ikaslearen egoitzari lotutako osagaia:** .....

2.700 €

**Aprobetxamendu akademikoari lotutako osagaia:** Ikaslearen batez besteko nota .....

Zenbatekoa

|                                  |       |
|----------------------------------|-------|
| 8,00 eta 8,49 puntu artean ..... | 50 €  |
| 8,50 eta 8,99 puntu artean ..... | 75 €  |
| 9,00 eta 9,49 puntu artean ..... | 100 € |
| 9,50 puntu edo gehiago .....     | 125 € |

Osagai hau emateko, aurreko ikasturteko batez besteko nota hartuko da kontuan, eta ikasketarik egin gabe ikasturte bat galdu izanaren kasuan, egindako azken ikasturteko batez besteko nota hartuko da kontuan.

## IKASKETA BALDINTZAK

### II. KAPITULUA

- Ikastaroa errepikatzen ez aritzea.
- Batxilergoko lehen mailako eta goi-mailako ikasketetako eskatzaileentzat, ikasketa horiek egiteko gaitzen dituen ikasturtean 5 puntuko batez besteko nota lortu izana.
- Goi-mailako irakaskuntzen bigarren kurtsoko eskatzaileek gutxienez 2025-2026 ikasturtean egindako ikasketen % 85 gainditu beharko dute.

## HEZKUNTZA-LAGUNTZAREN BERARIAZKO PREMIAK DITUZTEN IKASLEENTZAKO LAGUNTZAK ETA DIRULAGUNTZAK

### III. KAPITULUA

**III. kapitulu honetan jasotako laguntzak eta sorospenak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren W67 aplikazioan erregistratutako ikasleei lagunduko diete, jarraian zerrendatzen diren hezkuntza-laguntza premia espezifikoaren tipologiaren bat edo batzuk dituzten ikasleentzat dira:**

- a) Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak, arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua (ADHN) duten ikasleak barnean direla, % 25eko edo gehiagoko desgaitasunaren edo jokabide-nahasmendu larriaren ondorioz. Desgaitasun-ziurtagiria behar bezala erregistratuta egon beharko da Hezkuntza Sailaren W67 aplikazioan.
- b) Hezkuntza-premia bereziei lotutako komunikazioaren eta hizkuntzaren nahasmendu larria duten ikasleak.
- c) Autismoaren espektroko nahasmenduari (AEN) lotutako hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak.
- d) Gaitasun intelektual handiarekin lotutako hezkuntza-laguntzaren berariazko premiak dituzten ikasleak.

Kapitulu honetako laguntzak eta sorospenak jasoko dituzten ikasleek hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasle gisa erregistratuta egon beharko dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren W67 aplikazio informatikoan eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik, 32. artikuluan xedatutakoaren arabera.

### Laguntza eta sorospen motak:

|                                                                           |                |
|---------------------------------------------------------------------------|----------------|
| <b>Irakaskuntza-laguntza:</b> .....                                       | 862 € gehienez |
| <b>Eskola-garraiorako laguntza:</b> .....                                 | 617 € gehienez |
| <b>Zereginak ikasteko ikasleentzako ikasmaterialerako-laguntza:</b> ..... | 204 € gehienez |
| <b>Pedagogia-berreziketarako laguntza:</b> .....                          | 913 € gehienez |
| <b>Hizkuntza-berreziketarako laguntza:</b> .....                          | 913 € gehienez |
| <b>Gaitasun handiko ikasleentzako laguntza:</b> .....                     | 913 € gehienez |
| <b>Eskola-garraiorako sorospena:</b> .....                                | 617 € gehienez |
| <b>Eskola-jantokirako sorospena:</b> .....                                | 574 € gehienez |
| <b>Gastu gehigarrietarako zenbateko finkoko sorospena:</b> .....          | 400 €          |

- **Jantokiko eta garraioko sorospenak** a), b) edo c) letretan aipatzen diren eta familia ugaria diren ikasleei dagozkie.

- Gaitasun handiko ikasleentzako programa espezifikoetarako, pedagogia-berreziketarako eta hizkuntza-berreziketarako laguntzen kasuan, zerbitzua ematen duen berrezitzaileak edo ikastetxeak sinatutako memoria erantsi beharko da, zerbitzu horren ezaugarriei buruzko informazio zehatza jasoko duena, honako hauek barnean direla: asteko eta ikasturteko ordu-kopurua, zerbitzua ematen duen espezialista eta ikastaroaren hileko eta guztizko kostua. Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazteko, gehienez ere ikasturteko 10 hilabeteetan sortutako kostua hartuko da kontuan.

### Bateraezintasunak

Ez da laguntzarik edo subsidiorik emango, baldin eta haien gastuak zerbitzu edo funts publikoek edo, hala badagokio, zentzuei dagokien zerbitzua finantzatzeko emandako laguntzek estaltzen badituzte. Era berean, ez dira laguntzak eta subsidioak emango doako zerbitzu bat bete nahi dutenean. Eskola-garraiorako laguntza eta sorospena bateraezina da Hezkuntza Sailak antolatutako eskola-garraioaren erabiltzaile-izaerarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako ikaslearen eskola-garraioari buruzko urriaren 31ko 164/2023 Dekretuan jasotako banakako laguntzekin, hezkuntza-gaietan eskumena duen sailak finantzatuta.

\* Ikasleek ezingo dute jaso agindu honetan araututako beka edo laguntza bat baino gehiago, nahiz eta aldi berean Agindu honetan zerrendatutako ikasketa mota bat baino gehiago egin. Eskatzaile batek beka-eskabide bat baino gehiago aurkezteko badu, aurkeztutako azkena baino ez da izapidetuko.

## EKONOMIA-BALDINTZAK (2025 URTEARI DAGOZKIONAK)

### Gainditu behar ez diren ondare-mugak

- 1.- Hiri finkak: 47.200 € (ohiko etxebizitza salbu).
- 2.- Landa finkak: 14.450 €.
- 3.- Balore higigarriak: 1.900 € etekinen muga.
- 4.- Jarduera ekonomikoak: 155.500 € arteko diru-sarreraren batura.

Gainditu ezin diren errenta-mugak (€):

| FAMILIAKO KIDEAK<br>GUZTIRA | 1. ERRENTA-<br>MUGA | 2. ERRENTA-<br>MUGA | 3. ERRENTA-<br>MUGA | HPB ERRENTA-MUGA<br>Hezkuntza-laguntzaren<br>berariazko beharra |
|-----------------------------|---------------------|---------------------|---------------------|-----------------------------------------------------------------|
| 1                           | 9.315               | 13.898              | 15.567              | 12.534                                                          |
| 2                           | 13.971              | 23.724              | 26.573              | 20.416                                                          |
| 3                           | 18.629              | 32.201              | 36.070              | 26.811                                                          |
| 4                           | 23.286              | 38.242              | 42.836              | 31.801                                                          |
| 5                           | 27.012              | 42.743              | 47.878              | 36.089                                                          |
| 6                           | 30.738              | 46.142              | 51.685              | 40.229                                                          |
| 7                           | 34.463              | 49.503              | 55.451              | 44.143                                                          |
| 8                           | 38.190              | 52.850              | 59.199              | 48.031                                                          |
| +1                          | +3.725              | +3.340              | +3.740              | +3.856                                                          |

### I. Kapituluako irakaskuntzak

- Haur Hezkuntza 1. zikloko ikasmailan, familia-errentak ezin izango du gainditu 1. Errenta-muga.
- Haur Hezkuntza 2. zikloko ikasmailan, familia-errentak ezin izango du gainditu 2. Errenta-muga.
- Gainerako ikasmailakoek:
  - \* Ikasmaterialeen osagaia jasotzeko, familia-errentak ezin izango du gainditu 3. Errenta-muga.
  - \* Jantokirako osagaia jasotzeko, familia-errentak ezin izango du gainditu 2. Errenta-muga.

### II. Kapituluako irakaskuntzak

- Ikaslearen familia-errentari lotutako osagaia lortzeko, familia-errentak ezin izango du gainditu 1. Errenta-muga
- Bizilekuari lotutako osagaia eta zenbateko aldakorra osagaia lortzeko, familia-errentak ezin izango du gainditu 2. Errenta-muga.
- Oinarrizko bekaren osagaia eta errendimendu akademikoari lotutako osagaia lortzeko, familia-errentak ezin izango du gainditu 3. Errenta-muga.

### III. Kapituluak. Berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleentzako laguntzak eta sorospenak

Laguntzak emateko, familia-errentak ezin izango du gainditu HBP Errenta-muga.  
Sorospenak emateko, ez zaio errentari edo familia-ondareari erreparatuko.

#### FAMILIA ERRENTAREN KALKULUA:

ZERGA OINARRI OROKORRA + AURREZKIAREN ZERGA OINARRIA – KUOTA LIKIDOA  
+ PFEZ aren aitorpenean sartzen ez diren diru-sarrerak eta laguntzak

#### Aplika daitezkeen kenkariak:

- 500 €, eskatzailea guraso bakarreko familia batekoa izateagatik.
- Familiaren errentaren %20, eskatzailea umezurtz absolutua eta 25 urtetik beherako denean.
- Sostengatzaile nagusiak ez diren familiako edozein kide konputagarri emandako diru-sarreraren % 50.
- Familia ugaria: 525 € familiaren etxean bizi den anai-arreba bakoitzeko, eskatzailea barne, kategoria orokorreko familia ugariak direnean, eta 800 € kategoria berezikoak direnean. III kapituluaren zerrendatutako hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleen kasuan, familia ugaria izateagatik kenkaria 2.000 €-koa izango da.
- Desgaitasuna: 1.811 € % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duen anai-arreba bakoitzeko, eskatzailea barne, eta 2.881 €, desgaitasuna % 65ekoa edo handiagoa bada. III kapituluaren zerrendatutako ikasleen kasuan, kenkaria 4.000 € izango da % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duen anai-arreba bakoitzeko, eskatzailea barne.
- 1.176 € unibertsitate-ikasketak egiten ari den eskatzailearen anai-arreba bakoitzeko, baldin eta bi ikasle edo gehiago bizi badira unibertsitate-ikasketak direla-eta familiaren etxetik kanpo.

Agiri bidez egiaztatu ezean, ez dira kontuan hartuko egoera horiek.

# 2026-2027



**BEKA**  
ez-unibertsitariak

**ESKATZEKO EPEA**  
2026ko uztailaren 27tik irailaren 30era  
[euskadi.eus/unibertsitateaz-kanpoko-bekak](http://euskadi.eus/unibertsitateaz-kanpoko-bekak)